

LINOREN BARATZEKO SEKRETUA IPUINAREKIN EGITEKO JARDUERAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1., 2., 3. eta 4. blokeak

Inguruaren ezagutza: 2. eta 3. blokeak

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena: 1., 2., 3. eta 4. blokeak

ASMAKIZUNAK ETA AHO-KORAPILOAK

Behariko dugun materiala

Asmakizunak eta aho-korapiloak.

Aurretiazko oharra

*Linoren baratze*ko sekretua ipuina irakurri baino lehen egin behar da jarduera hau.

Jarduera osatzeko, hainbat barazkiren argazkiak erabil ditzakezue.

Garapena

- Ipuina kontatu baino lehen, barazkiez zer dakiten ikusiko dugu. Abiapuntu gisa aho-korapiloak eta asmakizunak erabiliko ditugu, ipuineko protagonista diren barazki batzuen izena asma dezaten.

Aho-kerapiloa

Piperra ederra,
gorria edo berdea,
berdea errea,
gorria errea,
ederra piperra.

Aismakizunak

Gordina entsaladan,
bakailaoarekin saltsan,
frijituta edo gazpatxoan,
jan eta jan.
(Tomatea)

Zer da hanka zuzena duena
bururik ez duena eta
txapela daramana?
(Barrengorria)

HAZIAK

Beharko dugun materiala

Cherry tomatearen haziak.

Kartoi zati bat.

Loreontzia, lurra eta ongarria.

Ilustrazioa.

Tomate-landarearen argazkiak.

Aurretiazko oharra

Garrantzitsua: genetikoki eraldatutako haziak erabiltzen badituzue, emaitzak ez dira, beharbada, espero bezalakoak izango. Horregatik, haziak tomate organiko batetik hartzea aholkatzen dizuegu.

Bideo honetan, argi eta garbi ikusiko dituzue tomatearen haziak lortzeko eman beharreko pausoak.

Haziak nola erein jakiteko, **esteka** honetara jo dezakezue.

Garapena

- Eranskinetako marrazkiaz baliatuta, landareek zein atal dituzten eta nola hazten diren azaldu, horretarako behar dituzten elementuak ahaztu gabe:

«Landare bat sortzeko, lehenik eta behin, hazia eta lurra behar ditugu. Ondoren, urari eta eguzki-izpiei esker, zainak aterako zaizkio; gero, pixkanaka-pixkanaka, zurtoina eta hostoak aterako zaizkio; eta, azkenik, loreak eta fruituak emango ditu».

- Tomate-landarea nola hazten den azaltzen duten argazkiak erakutsi, prozesuaz jabetu daitezten.
- Hazi mota ezberdinak daudela adierazi: babarrunen kasuan, babarruna bera ereiten da, eta ilarren eta txitxirioen kasuan ere bai.
- Tomatearen haziak atera: kartoi zatia hartu eta igurtzi tomatearen kartoiaren kontra. Haziak erantsita geratuko dira. Eguzkitan lehortzen utzi eta berehala egongo dira haurrei erakusteko moduan (hazi horiek ez dira ereiteko egokiak).
- Ereingo ditugun haziak prestatu: aholkatutako bideoa azalpenei jarraituz, tomateari haziak kendu, edota ereiteko prest dauden hazien poltsatxo bat erosi.
- Haziak loreontzi batean erein, urrats bakoitzean zer behar dugun eta zer egin behar dugun azalduz (adierazitako estekako azalpenei jarraitu).
- Behin haziak erein ondoren, gero fruituak bildu ahal izateko landarea zaintzeko lanetan guztiek parte hartzeak duen garrantziaz gogoeta egin.



TOMATEA HAZTEKO PROZESUA





IRAKURKETA-FITXA: LINOREN BARATZEKO SEKRETUA

Beharko dugun materiala

Linoren baratzeoko sekretua ipuina ([esteka](#)).

Barazkien txantiloak, margotzeko.

Garapena

1. fasea

- Eman hurrei barazkien txantiloak, margotu ditzaten, ipuina irakurri ondoren hausnarketa egiteko beharko dituzte eta.
- *Linoren baratzeoko sekretua* ipuina irakurtzea, ilustrazioak erabiliz narrazioa laguntzeko.

2. fasea

- Haurrak biribilean eser daitezela, galderak taldean erantzun ditzaten. Margotutako barazkiaren txantiloia prest izan beharko dute, erantzunak emateko erabili beharko baitute.
- Horretarako, margotu duten barazkia jaso beharko dute galdetzen denaren erantzuna bada (esate baterako, galdetzen badugu «zein dira baratzeoko txikienak?», Cherry tomateak, ilarrak eta barrengorriak margotu dituztenek jaso beharko dute beren marrazkia):
 - Zein barazkiak uste dute direla baratzeoko garrantzitsuenak? Zergatik?
 - Zeintzuk dira baratzeoko txikienak?
 - Norekin osatzen du talde bikaina Cherrik entsaladak egiteko?
 - Zein da baratzeoko sekretua, Cherrik kontatzen diena?
 - Zergatik dira hain garrantzitsuak haziak, nahiz eta oso txikiak izan?
 - Zer ikasi dute baratzeoko barazki guztiek Cherrirengandik?
- Margotutako txantilo guztiak erraz ikusteko moduko leku batean zintzilik jarri ikasgelan, hurrengo jardura egiteko erreferentzia moduan beharko ditugu eta («Aniztasuna»).

LINOREN BARATZEKO SEKRETUA

Udaberria da Linoren Baratzera iritsi
eta barazkiak daude urduri,
denek nahi dutelako
barazkirik handienaren lehiaketa irabazi.

Kalabazinek uste dute eurak direla onenak,
urte askotan haiek izan baitira garaileak:
«Gurekin errezeta asko prestatzen dituzte;
hirugiharrez bete, arrautzeztatu edo plantxan egiten gaituzte.
Mundu guztiak esaten digu: baratzeko poza zarete!».

Kalabazinaren hitzek tristura eragiten zioten Cherriri,
tomate txikitxo zen arren balio handikoa zenari:
«Denok gara garrantzitsuak, eta egin behar duguna da elkartu,
partekatze moduko errezetak ditzaten prestatu».

Tomate handi batek bere landaretik egin zuen oihu:
«Tomate kaxkar batek esandako tontakeria da hori, ziur!
Entsalada perfektua nirekin bakarrik presta dezakete,
olio eta gatz apur batekin mahaira eramaten naute».

Cherrik, beherantz begira, hauxe esan zuen goxo-goxo:
“Nik nahiago dut ondoan izan adiskide letxugatxo.
Talde bikaina osatuta, gurekin errezeta ederrak egiten dituzte oso”.

Ilarrak Cherriren alde agertu ziren, argi eta garbi.
Haiek ere txikiak dira, baina dituzte bitamina ugari!
«Ez da bidezkoa handiek beharrezkoak direla pentsatzea!
Hemen denok gara garrantzitsuak, gure tamaina gorabehera».

Piperrak ere irabazle jotzen zuen bere burua.
Bereak eta bi esanda, guztiei erakutsi zien bere amorrua.

Baina lurrak zuen baratzeko altxorrik baliotsuena,
eta unea iristean Cherrik esan zien honakoa:
«Baratzeak sekretu bat dauka, eta laster duzue jakingo.
Eta, hori argitzean, liskarretan ibiltzeari diozue utziko».

Hurrengo egunean, beren handitasunaz harro agertuz,
urte horretako irabazleek saria zuten hartu:
tomateak jaso zuen hirugarren saria,
piperrak bigarrena, eta izan zen garaile kalabazina.

Irabazleak zeuden harro-harro.
«Gora txikitxoak!», egin zuten barrengorriek oihu.



Une horretan, Cherrik bere landaretik egin zuen jauzi
eta aho-zabalik utzi zituen sekretua zien jakinarazi:


«Hona hemen haziak», esan zuen bere jaka irekiz.
«Oso txikiak dira, baina haiei esker gara bizi.
Denok behar ditugu, iraun ahal izateko.
Haziak erein izan ez balira, gutako inor ez litzateke hemen egongo».


Kalabazinak eta tomateak izututa begiratu zioten elkarri,
eta piper berdea lotsaren lotsaz jarri zen gorri-gorri.
Besteak baino gehiago zirela uste izan zuten, baina oker zeuden:
ez ziren besteak baino garrantzitsuagoak, handiagoak izan arren.



Egun horretatik aurrera, baratzean denek errespetatu zuten elkar:
handiak edo txikiak izan, baliotsuak gara denak.

Hurrengo uztan, erein zituzten haziak,
eta handik denbora batera bildu zituzten igaliak.

Era askotako barazkiak bildu zituzten urte horretan,
kolore eta neurri ezberdinetakoak,
eta osasuntsu jateko guztiak ere oso beharrezkoak!







ANIZTASUNA

Beharko dugun materiala

Barazkien txantiloiak.

Aurretiazko oharrak

Ipuinean agertzen diren barazki guztiak aipatu, Irakurketa-fitxa jardueran margotutako txantiloiak erabiliz.

Jokoarekin hasi baino lehen, eranskineko txantiloiko barazkiak banatu behar ditugu, behar diren taldeak osatzeko. Barazkiak fotokopiatu, moztu eta haur bakoitzari bat eman.

Garapena

1. fasea

- Biribilean eseriko gara eta haur bakoitzari barazki bat esleituko diogu, honako hauen artetik: tomatea, letxuga, barrengorria eta piperra.
- Egiaztatu haur bakoitzak badakiela zein den bere barazkia. Horretarako, eskua jaso, eta zein barazki duten erakutsi dezatela.
- Esaten dugunean «Gaur, entsalada prestatzeko, erabiliko ditut...», erne entzun beharko dute barazkien izena, eta eurena bada zutik jarri eta azkar-azkar zirkuluaren erdian jarri beharko dira. Adibidez, esaten badugu «Gaur, entsalada prestatzeko, erabiliko ditut... **barrengorriak eta piperrak**», barrengorri eta piper guztiek erdira joan beharko dute.
- Era berean, honako hau esaten dugunean: «Gaur, entsalada prestatzeko, erabiliko ditut... **osagai guztiak**», haur guztiak altxatu eta erdian jarriko dira. Orduan, esan osagai guztiak erabiltzen ari garela, eta ezin goxoagoa geratuko dela gure entsalada, barazki bakoitzak bere ekarpena egingo diolako.

1. txanda: «Gaur, entsalada prestatzeko, erabiliko ditut... **tomateak eta piperrak**».

2. txanda: «Gaur, entsalada prestatzeko, erabiliko ditut... **barrengorriak eta letxuga**».

3. txanda: «Gaur, entsalada prestatzeko, erabiliko ditut... **tomateak eta barrengorriak**».

4. txanda: «Gaur, entsalada prestatzeko, erabiliko ditut... **letxugak eta piperrak**».

5. txanda: «Gaur, entsalada prestatzeko, erabiliko ditut... **osagai guztiak**».









2. fasea

- Berri txarrak: txingor-zaparrada batek hondatu egin ditu gure letxugak. Ekaitzaren eta zaparradaren soinua egiteko eskatuko diegu haurrei. Letxugarik gabe geratuko da gure baratzea. Ziurtatuko dugu letxugak zituzten haur guztiak erretiratu egin direla.
- Gure entsalada egiteko zenbat barazki geratzen zaizkigun ikusiko dugu. Horretarako, eskua jasotzeko eta egokituko zaiena erakusteko eskatuko diegu.
- Jakinaraziko diegu baratzean artalde bat sartu dela eta ardiek barrengorriak eta tomateak zapaldu dituztela. Eskatuko diegu ardiak balira bezala beee egiteko. Barrengorriak eta tomateak erretiratu egingo ditugu baratzetik.
- Piperrak baino ez zaizkigu geratuko.

Hausnarketa

- Zuen ustez, piperrekin bakarrik egin al dezakegu entsaladarik?
- Jango al zenukete piperrak bakarrik dituen entsalada?
- Konturatzen al zarete zein garrantzitsua den barazki mota ezberdinak izatea ongi elikatu gaitezen eta errezeta aberatsak, bitamina askokoak prestatu ahal izan ditzagun?
- Adierazi garrantzitsua dela aniztasuna egotea, ikasgelan bezala (garaiera, larruazalaren kolorea, ilearen kolorea, begiena...).
- Ikasgelako guztiok berdin-berdinak bagina, zer irudituko litzaizueke?
- Zuen ustez, zer da hobea: ikasgelako guztiok berdinak izatea ala ezberdinak izatea? Zergatik?
- Ugaritasunak aberastasuna esan nahi duela ulertu dutela ospatzeko, osagai guztiak erdian jarriko dira berriz, eta esaldi hau esango dute guztiek batera: **«Entsaladarik onena, osagai guztiak dituen!»**.



BALIOEN BARATZEA

Beharko dugun materiala

Balioen baratzea marrazkia.

Aurretiazko oharrak

Marraztu eta zintzilikatu *Balioen baratzea* posterra ikasgelan ondo ikusteko moduko toki batean zintzilik, haur bakoitzak bertan itsatsi ahal izan dezan marraztu eta margotu duen barazkia.

Garapena

- Cherrik bezala, gizakiok ere haziak ditugu gure barruan: gure **balioak**; hau da, besteen alde egiten ditugun ekintzak. Adibidez, gauzak partekatzen ditugunean, eskuzabaltasunaren hazia ereiten dugu.
- Jarraian, haur bakoitzak gogokoen duen barazkia marraztuko du, eta bere izena idatziko du bertan (A4 folio bakoitza lau zatitan egin, eta haur bakoitzari zati bat eman, bere barazkia marrazteko).
- Ikasgelan, ondo ikusteko moduko leku batean zintzilikatu *Balioen baratzea* posterra.
- Denak borobilean eseri eta hausnartu: pentsa dezatela noizbait besteen alde egin duten zerbaitetan (norbaiti zerbait egiten lagundu, zerbait partekatu, bakarrik zegoen haur bat jolastera gonbidatu...). Haur bakoitzak ozen esan beharko du ondo egin duen hori, bere barazkia balioen baratzean jarri aurretik.
- Haur guztiek beren barazkia baratzean jartzen dutenean, gogoetari amaiera emango diogu: gutako bakoitzak gure hazia jarri dugu. Besteen alde zerbait ona egin dugun bakoitzean, gure balioak erein ditugu baratzean; horregatik izena du **Balioen baratzea**. Orain, zaindu egin behar ditugu balio horiek; ureztatu egin behar ditugu; besteen alde gauza onak egiten jarraitu behar dugu. Hala egiten ez badugu, gure baratze eder hau hondatu egingo da eta belar txarrez beteko da.

ANTZEZTU EGINGO DUGU

Beharko dugun materiala

Linoren baratzeako sekretua ipuina.

Dekoratua egiteko eta pertsonaien jantziak egiteko materialak.

Aurretiazko oharra

Ipuina antzeztea da hemen xedea. Cherrik behin baino gehiagotan esku hartuko duenez, onena izango litzateke hainbat neska-mutil aritzea Cherri antzeztean.

Garapena

- Banatu testua ikasgelako haur guztiei. Batzuk ipuineko pertsonaiak izango dira; beste batzuk, berriz, narratzaileak.
- Pertsonaiak:
 - Cherri
 - Kalabazinak
 - Tomateak
 - Ilarrak
 - Piperra
 - Barrengorriak
- Garrantzitsua da haur bakoitzaren familiak ipuina irakurrita izatea eta haurrari dagokion esaldia buruz ikasten laguntzea; eta, bide batez, istorioak transmititzen dituen balioak finkatzen ere laguntzea.
- Haur guztien sormena erabiliko dugu pertsonaien jantziak eta dekoratua egiteko.
- Oso interesgarria izango litzateke istorioa ikastetxeko beste gela batzuetako haurrekin partekatzea eta ipuina urtean zehar egiten den jaialdiren batean antzeztea.

BALIODUN ERREZETAK

Beharko dugun materiala

Baliodun errezetak jarduera-koadernoan.

Aurretiazko oharrak

Jarduera honetan, familia osoaren laguntza beharko dugu, elkarrekin errezeta bat prestatzeko. Gurasoei jarduera-liburua ematen diegunean, minutu batzuk beharko ditugu edukia eta azalpentxo batzuk eman ahal izateko.

Garrantzizkoa da, bestalde, familiek *Linoren baratzeko sekretua* ipuina ezagutzea, jarduera hobeto ulertu ahal izateko eta hurrei istorioak transmititzen dituen balioak finkatzen laguntzeko.

Garapena

1. fasea

- Erakutsi eranskinetako *Jarduera-koadernoan: Baliodun errezetak*, eta azaldu zer egin behar duten:
 - Fitxa hau etxera eramango duzue, gurasoen laguntzarekin betetzeko. Etxean errezeta bat prestatu behar duzue, *Linoren baratzeko sekretua* ipuinean agertzen diren barazkietako batzuk erabiliz. Erreparasatu barazki horiek zein diren.
 - Errezeta prestatzeko behar izan dituzuen osagaiak nondik atera dituzuen idatzi beharko duzue: auzoko dendan erosi dituzuen, edo supermerkatu batean, beren baratzeko barazkiak diren, senitartekoren baten baratzekoak diren, norbaitek oparitu dizkizuen...
 - Familiako kide bakoitzak errezeta prestatzeko zer lan egin duen idatziko duzue. Elkarrekin prestatu duzuen platera elkarrekin jango duzue.
 - Zuen errezetarekin egin duzuen platerari argazki bat atera, familia osoa inguruan ikusten dela, eta argazkia dagokion koadroan itsatsi. Marrazki bat ere egin dezakezue.



2. fasea

- Argazkiak erantsita dituzten fitxa guztiak ikusteko moduko leku batean esekiko ditugu ikasgelan, eta egindako lanari buruz mintzatuko gara:
 - Zer plater prestatu duzue?
 - Zer barazki erabili dituzue?
 - Zer lan egin duzue?
- Kontura daitezela zenbat osagai ezberdin erabili dituzten errezetak prestatzeko.
- Jarraian, honako gogoeta hau egingo dugu: gero eta gutxiago zaintzen dugu planeta; munduko leku askotan haur askok ezin dituzte guk adina janari ezberdin jan, eta goseak egoten dira. Pentsatu behar dugu oso garrantzitsua dela planeta eta natura zaintzea, hortik ateratzen direlako jaten ditugun elikagai guztiak.



JARDUERA-KOADERNOA:
BALIODUN ERREZETA**1. Gure errezetaren osagaiak**

Prestatu errezeta bat, barazki hauetako bat edo batzuk erabiliz.
Erabilitako barazkiak X batekin markatu.

☐☐☐☐☐☐☐

2. Adierazi nola eskuratu dituzun errezetako osagaiak. (Idatzi nola lortu duzun osagai bakoitza: erosi egin duzu? Non? Baratzetik hartu duzu? Noren baratzetik? Oparitu egin dizute?...).

3. Pertsona bakoitzak **zer lan egin duen** adierazi.

4. Jarri hemen platera eta familiakoak ikusteko **argazkia edo marrazkia**.

On egin!